

Nafarkaria

• ostirala • 1999ko urtarrilaren 15a

Egunkaria

Gehigarri honetan



Uitzi • Eratsungoekin batera, Uitzikoek hasiko dute inaute garaia.

Iñaki Alvero • «Nire poesia alternatiboa da».

‘Berako historia, 1500-1850’



• ANTONIO OLLETA

tokiko historia ezagutzeko aukera

Bidasoako Ikerketa Zentruak abiatu berri duen aldizkariaren lehen alea kaleratu du. Berako historia, 1500-1850 izenburupean, Antzinako Erregimenean, Berant Erdi Arotik joan den mendearen erdialde arte herriko historia ezagutzeko aukera eskaintzen du argitalpenak. Bide batez, tokiko historiaren garrantzia azpimarratu nahi da.



Lizarra ●

Antzerki gaztearen erakustaldia

Lizarra ikastolako ikasle ohien taldeak 'XX.ko neska zoroak' lana taularatuko du gaur

Joan den ostiralean hasi zen Lizarran IX. Antzerki Gaztearen Erakustaldia eta gaur gauean ospatuko den saioak bigarrena egingo du. 1990. urtetik aitzina ospatzen den antzerki emanaldia gaur zortzi amaituko da Lizarherria Institutoko ikasleen partehartzearekin.



Gaur egun bor-bor dauden gaiak jorratzen ditu Lizarra Ikastolako antzerkitaldearen azken lanak, hala nola telebista edo zinemaren inguruko jendearen erotasuna.

ARTXIBOKOA

ILUNTZEKO ZORTZIETAN PUNTU-puntuan argiak moteldu egingen dira. Isilta-suna. Tranpaldo gainean aulki multzoa, ilargi irudia marraztuz. Eserleku bakoitzaren gainean jantziak eta piltzarrak. Argia indartzen den ahala neska talde bat ageri da eskena-tokian, soinean azpiko gona baino ez daramate. Aktore bakoitza aulki batera hurbiltzen da eta isilean, bertan dagoen soinekoa jantzen du. Isiltasuna berri ere. Neska bakoitza aulki-banan eseri da.

Horrelaxe hasten da gaur gauean Lizarra Ikastolako antzerki taldeak eskainiko duen antzerki lana. *La vida*

kecotxina es hain zuzen. Bertan, mende honetan zehar nabarmenak izan diren hainbat eta hainbat abagadune kontatzen dira.

Esaterako, gizonak ilargia zapaldu zuen momentua birgogoratzen da edota Frankoren garaietan bizi izandako zenbait aldarte. Halaber, gaur egun pil-pilean dauden gaiak ere jorratzen ditu antzerki taldeak: anorexia, batetik, eta zinemaren inguruko jendearen erotasuna, bestetik.

Josu Reparazen zuzendaritzapean jadanik Lizarra Ikastolako ikasle ohiak diren 14 neskatok partehartzen dute lanean eta gazteak badira ere, dagoeneko sari bat baino gehiago jaso izan dute aurretik egin zuten antzeslanarekin.

Bere azken lana ikusteko aukera gaur izanen da, 20:00etan, Julian Romano musika eskolan.

Arestian erran bezala, antzerki emanaldia Lizarrako

Antzerki Gaztearen Erakustaldiaren barruan kokatzen da.

Aurreneko antzeslana joan den ostiralean antzeztu zen, eta, hirugarrena eta azkena, gaur zortzi taularatuko da Lizarherria Institutoko ikasleen Sorginen mutina lana izanen da. Ordua eta tokia beztearen berdinak dira.

Bederatzi urteko bidea

1990. urtetik ospatzen dira

Ega ibaia zeharkatzen duen hirian gazte antzerki emanaldiak. Urtetik urtera eskola ezberdinek presatatu izan dituzten lan aipagarriak taularatzen dira. Lizarrako Udaleko Gazteriaren Batzordeak antolatzen du ekitaldia eta asmoa, beti ere, gazteek urtean zehar egiten dituzten lanak ezagutzera ematea da.

Marta Tejado Gazteriaren bulegoko langileraren esanetan, ekimenaren bidez gaztetxoek herritarren artean aurkeztu ahal dute egiten duten lana baldintza egokietan eta eskentoki baten gainean.

Aurtengo berrikuntza hiritik kanpoko talde batek partehartu izana da. Izan ere, aurreneko emanaldia Oteitzako Tiko Tiko antzerki taldeak oholtzaratu baitzuen. Orotara herrixka horretako hamar gazteek sortu berri duten taldearen lehengo lana ikusi ahal izan zen joan den astean Lizarran. *Bederatzi ero* lana da eskaini zutena.

Taldekideten adina 18 urtetik 25ra bitartekoa da eta antzeslanaren idazlea eta zuzendaria 18 urte baino ez dituen Jose Cruz de Miguel izan da. Zuzendariaren hitzetan lanaren bidez zurrumurru baten aurrean gizarteak har dezakeen jarrera zoroa islatu nahi izan dute Tiko Tikoko partaideak.

→ Kristina Berasain

denbora pasa

XAMAR



Errege egunean aldapa goiti, kamioitar baten gibelean sortu zen kotxe lerroan harrapatu balizko autobiaz oroit nintzen Erroko portuan; Mezkirizkoan ez zen deus aldatu eta denbora ausarki bazen zernahi pentsatzeko.

Gero eta ardurago gertatzen ari dira halako sofrikario bidaiariendako Iruñetik Luzaiderainoko bidean, aipatu gabe herrietan sortzen diren arazoak: Erron, Auzperrin, Auritzen eta Luzaiden bereziki. Azken hontan iaz, herriko festakari, sortu zena historikoa izan zen.

Arazoa sinplea da eta aise konpontzekoa. Aski luke nafar (des)gobernuak festa egunetan kamioen debekatzea gauren bidetan, EAEn egin duten

Estrategiak

bezala. Funtsean bat-bateko garraiolari uholde hau EAEko debekuak du eragin. Ondorioz Baxenafarroara edo Lapurdira doazen bideendako eta bertako herriendako dira arazoak. Hainbertze sortu dira non Lapurdiko mugaldeko herriek debeku bera galdegin zuten trafikoa desbideratu beharrez, Baztan aldekoak ere kexu ageri zirelarik.

Nago zerbait ardietsi zutela, ez baita sobera entendagarria kamion tzar horiek Luzaideko bide hestu, bihurri eta zaila (hiru portu baititu) hautatu izana kurrizteko.

Gauren inguruan herriak txikiak eta ahalmen gutikoak (erran nahi baita boto gutikoak) izanik aski ixil pairatzen dute egoera.

Errege eguneko gabean Iruñera bueltan gauza bera, kamionak goiti eta beiti ezin gurutzatuz pausu hestuetan (funtsean nonahi), auto lerroak eta ohiko letaniak... Bapatuan ohartu nintzen: hauxe da gobernuak nahi duena, gero eta oztopo gehiago izan dezagun bidean; zertako debekatu trafiko hori? Ez, ez, ikus dezatela zer den eta azkenean haiek berek, herriek eta herritarrek, faborez galdeginen daugute egin dezaiegun autobide bat ahalik eta fiteen...

LEIA kasu! Eskatu beharreko lemixiko gauza garraioen debekua da, iritzi publikoa autobide «beharraren» aldeko bilakatu baino lehen.



urdairen
mintzoa

Xabier Larraburu

Uitzi •

Urteko lehen inoteak

Eratsunekin batera, Uitzik ematen dio hasiera inauteri garaia

Maiordomoena bezelako ohitura zaharrek bat egingo dute, aurten ere, berriagoak diren beste zenbaitekin. Mozorrotuta lotsa galdu ohi del eta, aukera aprobetxatuko dute uitziarrek hargikeriaren omenezko jaia ospatzeko.



Uitziko gazteak kalera atsotuta aterako dira berriz ere asteburuan. ● MAILOPE

LEHEN, GARAI BATEAN, ERREGE Egunaren inguruan izaten omen ziren Uitziko inoteak. Baina, azkenaldi honetan, pixka bat atzeratu dituzte jaiok, eta ondorioz, hilbeltzaren bigarren asteburuan ospatzen dira. Bi egun baino ez dira izaten, baina uitziarrek, eta ingurukoek ere, izugarriko zukua atera ohi diete bi egun hauei. Gehiagorako aurrekonturik ez dute izaten, baina imajinazioa ugari bai. Garizuma hasitakoan, hargikeriatarako tarterik ez da izaten edo behintzat, ez leku izan behar. Horregatik, berebiziko garrantzia izaten dute inoteak, Garizuma aurreko azken egunak diren heinean.

Horretarako, larunbateko gaupasa aukera egokia izango da. Gauez, egunez egingo duten antzera, herritar gehienak neskaz jantziko omen dira, etxeetan aurkitutako trapu zaharrek. Aparteko festa bilakatu den honetara, kanpotarrak ere bildu ohi dira. Baina, hala ere, ez dute ekitaldi guztietan parte hartzeko au-

kerarik izaten. Maiordomoen aukeraketan, esaterako, ez dute parterik izaten. Herriko mutil hoberena omen dena aukeratzen da maiordomo, baina hori ez da beti hain garbi geratzen. Mihi gaiztoek diotenez, herrian mutil gutxi direnez, azkenerako gaiztoei ere luzatzen omen diete maiordomo izateko aukera. Ohitura

zaharra da oso, oraindik ere Uitzin mantentzen duena. Beste ohitura batzuk, ordea, ez dute zorte berdina izan.

Larraungo herri gehiengotan, lehen, onotetako protagonista, mila kolorezko papez apaindutako panpina izan ohi zen. Aitexarko zuen izena, eta Miel Ontxin eta antzekoen anaia zen. Gazteek, inote bezperatan egiten zuten panpina, eta gero, lagun harturik, eskean ibiltzen ziren. Helduak, bien bitartean, txekor bat hil, eta haragi horrekin egiten ziren, gero, inote garaiko otorduak. Baina beti bai omen zen tirabirarik gazte eta helduen artean. Hauek, Aitexarkoren bila abiatzen ziren, baina gazteek, panpina ederki izkutatzen zuten ganbareren batean. Gizonak ziren protagonista bakarrak. Emakumezkoek halere, bazuten bere tartetxoak. Hauen eginbeharra menderura eramatea zen. Neska bakoitzak, etxe bakoitzetik, oilasko bana eramaten zuten. Horrela, inote egun batez, mutilek neskak gonbidatzen zituzten merendatzera.

Baina atzekoari gehiegi begiratu gabe, aurrekoaz arduratu behar. Asteburu honetako gaiaz alegia. Eta oraindik aurrerago begiratu gero, jai giroan jarraitzeko aukera ere bada. Hurrengo hitzordua, Leitzakoak.

→ Urko Aristi

Iruñeko Kotoi txuriaren froga

Barkatu endredoak bainan nahiz eta jakin gai batzuei buruz aritzeko «zutabe bat ez dela leku aproposena» ohiko gaitiaz haratago joan nahi dut gaurkoan. Literaturaz idatzi nahi dut.

Gaua da Ozeano Barean. Ekaitza gogor ari du. Itxasontziko gizonak bela eta kordekin borrokan ari dira. Bapatean iñasturak itxasoa argitu eta gauak ezkututzen zuen irudi ikaragarri bat agertu die: itxasoaren erdian, taula baten gainean, bi gizon, labanak eskuetan, borrokan nola ari diren ikusi al izan dute. Instant bat izan da. Mementu txiki txiki batean derrepenteko argi horren pean ikusi al duten eta espero ez zuten irudi ikaragarria izan da. Gero gaua berriz ere jausi da, eta berarekin batera misterioa.

Horrela hasten da Salgarik idatzitako eleberritxo bat. Tuppustean. Bapatean. Batzuentzat Emilio Salgarik egiten zuena txorizoak ziren eta ez literatura. Ez nago batere ados. Niretzat literatura txarra beste gauza bat da. Esate baterako leihu bat irekitzeko sei pagina behar izate hori edo istorioan sartu aurretik «beroketak» egitearena.

Batzuetan «beroketetan ari direla» aski ongi igarri daiteke lemiziko paginatik. Hau, pixka bat, «kotoiaren frogarekin» du antza. Lemiziko folioan, kasu aholkuari, kasu kotoiari (kotoiak ez baitu engainiatzen!) kontaktzen badizute norbait esnatzen ari dela... malo. Esnatu, jeiki, eta, izandako ametsak gora-behera, gosalzten badu... txungo. Gero garbitzen bada... puaf!... zer esango dizuet ba!... garbitzen bada... hobe duzue liburua ixtea! Seguro zure bizitza hori baino interesgarriagoa izango dela ezta? (...eta horrela ez bada funtzionario bezala segitzeak akaso ez dizu merezi). Horrelakoetan ikastolan idazten genituen erredakzio lanen tankera guztiak hartzen ditu istorioak: «zer egin duzu gaur? Orrialde bat. Ordu erdi duzue». Haurrak ginela hortik hasten ginen ezta? «Gaur esnatu eta ohetik alxtatu naiz. Gero Colacaoa gailetekin hartu dut eta... guos guos guos». Hamalau urtekin idazteko ez dago gaizki. Zinemagile batek filmak «Diluviorekin hasi eta hortik aurrera istorioak gora egin behar duela» esan zuen. Aholku ona iruditzen zait. Kotoia txuria ateratzeko aina.



herri aldizkariak

Edurne Elizondo

Aldudeko autobideaz

Alduden egin nahi duten autobidearen kontra joan den larunbatean Donibane Garazin egindako protestaldia aitzakitzat hartuz, proiektu horren kontra sortu **Leia** elkartearen berri ematen du Herria astekariaren azken zenbakiak: «Hastepenez gero **Leia** entseiatu da jakitera zein diren autobide horren funtsezko arrazoinak. Zilatua duten xehetasun bakarra da Nafarra dela interesatua Pirinioetan barna autobide horren pasarazteko Iruñetik haste, behar bada Pariseraino joateko: Madrilego gobernu prest liteke Madrile / Iruñe

partearen pagatzeko baldintza horretan». Autobidearen kontrako arrazoiak aipatzen ditu Herria astekariko artikulua: «Ikusiz autobide kilometra bat mendiguneran irakitzea miliar bat zentima eta 12 hektara eremu gostatzen dela, pentsa zer jasan lezakeen Baigorriko baleak, hain segur ere eremu ordokienetik beraz laborantzian lantuenetik pasa bailiteke. Hastapenetik laborantzak lukeelarik kalte handiena **Leia** ohartzen da Baiona / Iruñe ardatza baztertzea dela eta autobide horren abantailak tokiarentzat ez direla

inon aipatzen ere. Bestalde ikerketek autobidea dute ideia bakarra, treinbidea bereziki osoki baztertzen dute».

«**Leia** muntatua da bederatzilabete honetan Baigorri aldean eta pareko elkarre bat izen berarekin muntatua da Auritzaldean. Helburua hauxe da: tokiko ekonomia sustatuko duten ideiak eta proiektuak lantu baina inguramena zainduz. **Leia**ko buruzagien artean dira Mixel Ernaga erakaslea, Peio Setoain Aldudeko auzapeza eta Jean Mixel Galan Azkaratekoa».

'Berako historia, 1500-1850'

tokiko historiaren adibide

Bidasoako Ikerketa Zentroak garai horretako hainbat alderdi historiko landu ditu kaleratu berri duen argitalpenean

Bidasoako Ikerketa Zentroak abiatu berri dituen koadernoaren lehen alea kaleratu du. *Berako historia, 1500-1850* izenburupean, Antzinako Erregimenean, Berant Erdi Arotik joan den mendearen erdialdera arte herriko historia ezagutzeko aukera eskaintzen du argitalpenak. Bide batez, tokiko historiaren garrantzia azpimarratu nahi da.



Berako irudi zaharrak. Historian gauzak zenbateraino aldatzen diren erakusgarri. ANTONIO OLLETA

gehiegirik erabili: artxibo historikoak, Nafarroako Protokoloak eta Artxibo Orokorrean begiratu ondotik egindako azterketak uste berriak harilkatzeko aukera eman die.

Ikertzen jarraitzeko asmoa

Aportazio berriak

Fernando Mikelarenak berak Berako biztanleriaren inguruan (1550 eta 1860 bitartekoa) eta Pilar Erdozainekin batera XVII. eta XIX. mendeetako familiaren, etxearen eta gizarte egituraren azterketak zein Aurelio Gutierrezen datu bilketa lana gutxietsi gabe, Bidasoaldeko Ikerketa Zentroko buruak Izaskun Abril eta Juainas Paul historialariek egindako ikerketak azpimarratu ditu. Abrialek *Berako Komunalak Aintzinako*

Erregimenean landu du, batetik, eta olak, bestetik. Paulek, berriz, Berako botereak eta gatazkak jorratu ditu. Bigarrenaren azterketan gertakariak garrantzitsuena botere tirabirak eragindako Berako sutearen inguruko afera litzateke. Mikelarenak berak dio 1638an Beran izandako sutea ez zela kasualitatea izan, baizik eta Salvador Altzate jaunaren mendekua. Urte horretan Bortzirieta herriaren zati handi bat suak kiskali zuen, eta sutea berez sortutakoa zela uste izan da. Nolanahi ere, ikerketa zentroak atera berri duen azterketaren arabera, susmo hori ez da egokia. «Sutea Salvador Altzate jaunxoaren mendekua eragina izan zen. Etxe batzuk erretzeaz gain, baserri asko ere suak kiskali zituen, elkarrengandik oso aparte egon arren. Euskal Herriko kontestuan jauntxo baten eta herriarren arteko gatazkaren adibide esanguratsuenetakoa da», dio Mikelarenak.

Bidasoako Ikerketa Zentroa 1996ko irailean abiatu zen. Bortziriak, Malerreka eta Baztan eskualdeetako berri jakin nahirik, toki horietako historia lantzea eta ezagutaraztea da zentroaren helburu nagusia. Xede hori gauzatu ahal izateko bi bide jorratu dituzte orain arte. Batetik, ikastaroak eman dituzte, eta bestetik, ikerketa lanak egiten dihardute. Ildo horretan, Lesakako eta Berako historia herrikideei hurbiltzeko asmoz, bi ikastaro eskaini dituzte jadanik. Lehena Lesakan egin zuten 1997an, eta bigarrena, 1998ko urtearen hasieran Beran. Bestalde, kaleratu berri duten ikerketa lanaz gain, beste batzuk ere egin dituzte. Eusko Ikaskuntzatik jasotako dirulaguntza bati esker, Lesakako

herriaren inako azterketa bat egiten ari diren batean bost urteko ikerketa baten ere, urte pare batean biko dutela uste dute. Azterlan Lesakako Zalam eta Alkaiagaetako ekonomiak zein gizarte X. mendean nolako funtzionadua zuten begiratu ari diren artean zuzendutako ikerketa bati esker, Lesakako

Baina aipakoa ez da egiten ari diren lanak. Europako Batasuneko zordeak Leader programarekin dirulaguntza bat eskaini. Baztan-Bidasoan arkeologi inbentarioaren inguruan dauden azterketak berri jaso zutenak. Bidasoako Ikerketa Zentroko kideak dioenez, kate bat egiten ari di-

ra eta heldu den hilabetean bukatuko omen dute. Hitzaldiak ere antolatu izan dituzte eta urtero hitzaldi ziklo bat antolatzeko asmoa dute. «Orain arte arazoak izan ditugu dirulaguntzak lortzeko, eta, proiektua egin daukagun arren, ez dugu aurrera atera ahal izan. Gure asmoa etorkizuneko horrelako jardunaldiak egiteko aukera izatea da», azpimarratu du Abrialek.

Izan ere, Fernando Mikelarenak, zentroko zuzendariak, ikertzeko asko dagoela dio, eta non arakatu badela. «Zonalde guztia hartuz, tokian tokiko historia lantzeaz gain, giza zientzien beste arlo batzuk eta gaurkotatutako gaiak jorratzea gustatuko litzateke, etorkizunerako planteamenduak egingez», bukatu du.

tako sorginkeria kasuak ere jauntxo horrek berak eragindakoak izanzen ziren.

Bestalde, Izaskun Abrialek egindako lana ere goraiatu du Mikelarenak. Berako herri-lurren aprobetxamendua ezberdina da inguruko aldean, Baztangoaren aldean adibidez. «Herri-lurren ustiaketa kasik jorratu gabeko gaia da, eta herri bateko aberastasunaren kudeaketaren inguruko hainbat datu ematen ditu. Horregatik, Berako kasuan antzematen da haazkunde ekonomiko ereduak kontrajartzen dela orain arte hobekiago eza gutzen den Baztango ereduarekin. Han, lur berria lantzeko, lurra lortzeko aukera bazen dohainik; aldez, Beran, herri-lurra saltzea oso zaila zen, baso eta egur baliabideak gordetzeko», dio Abrialek.



MIKEL SAIZ

Fernando Mikelarena

Jakina denez, basoa gorde behar zen, hura zelako Beran zeuden oletarako ikatza egiteko lehengaia. Ereduak Gipuzkoako eta Bizkaikoaren antza du. «Saiatu ziren oreka gordetzen nekazaritza eta basoaren artean, lur urraketak basoa galaraz ez zezan, eta ondorioz egurra», erantsi du Mikelarenak. Hortaz, herri-lurra garesti saltzen zen, urraketa handiak egiteko aukerarik izan ez zedin.

Mendiaren ustiaketa inguruko ordentzak irakurrita, ikusi du mendeetan zehar mendien ustiaketa neurri handi batean baldintzatuta zegoela Beran zeuden olen produktioagatik. Bertetik, olaren artikulua egiteko Lesakako artxibategian gorde diren liburuak baliatu ditu. Ikusten da nolako funtzionatzen zuten eta nolako eragina zuten ekonomian. «Ikusi dut olek Beran, bai Erdi Aroan bai Aro Modernoan, izugarriko garrantzia izan dutela mendien ustiaketa eta deforestazioan. Neurri berean ikusten da olek izugarriko boterea zutela herrian. Inguruan lanpostu aunitz sortzen ziren eta Berako ekonomia mugitzen zuten. Botere politikoa kontrolatzen zuten, eta mendien ustiaketa olen beharrak betetzeko egiten zen», dio Abrialek.

Azterketa horiek ekarritakoa nabarmendu nahi izan bada ere, beste datu garrantzi-

tsurik ere ikus daiteke argitalpenean. Adibidez, Berako biztanleriak izandako aldaketak; 1813 eta 1814 artean Independentzia Gerra zela eta biztanleriaren %15 hil zela Armaden eraginez; eta XIX. mendean zeuden 137 baserrien bilakaera eta kokapenaren zergatia.

Jende gehiagoren premia

Ikerketa Zentroaren koadernoaren lehen alea Beran eta Lesakan herriko historia ezagutzeko egindako ikastaroak izan baziren ere, hainbat dokumentazio erabili dute. Sutearen oztopoa gauditurik, elizako orrialdeak eta erroldak, argitaratutako gauzak eta susmoak, Berako Udal artxiboa, eta Nafarroako Artxibategi historikoa zein protokoloak.

Tokian tokiko historiaren azterketek mendeetan hurbilean jasotako gertaerak beste modu batean ulertzeko eta hurbiltzeko aukera ematen duten moduan, historialari eta zaleak trebatzeko aukera ere eskaintzen du. Bide horretan, Bidasoako Ikerketa Zentroak, azterketa ez ezik, ikertzaile berriak ere bultzatu nahi ditu. Taldekideek jende gehiagoren beharra azpimarratu dute, hobeki eta lasaigo lan egin ahal izateko. «Jende berri bila gabiltza eta gazteak hurbiltzea nahi genuke. Baztan, Malerreka eta Bortziriak hartu nahi izan baditugu ere, oraingoz Bortzirieta mugatu gara, ezinezkoa delako guztia hartzea», diosku Mikelarenak.

Bestalde, tokiko historiaren garrantzia azpimarratu nahi dute lan honen egileek. Alde batetik, tokiko historiari kontzeptu historikoen esanahia ezagutzeko balio du. Halaber, herri baten oraina ulertzeko balio dezake.

→ Irene Arrizurieta



Izaskun Abril

«Olek izugarriko boterea zuten herrian. Inguruan lanpostu aunitz sortzen ziren eta Berako ekonomia mugitzen zuten. Kontrolatzen zuten botere politikoa, eta mendien ustiaketa olen beharrak betetzeko egiten zen»

IKERKETA ZENTROAREN LEHEN KOADERNOAK bederatzita lan bildu ditu, 1500etik 1850era bitarteko Berako historiaren berri emanez. «Zenbaki monografiko honen bidez, gure herriko historiaren alderdi batzuk ukitzen dira: biztanleriaren eboluzioa eta ezaugarriak; familia; nekazaritza izandako aldaketak; lur jabetasuna eta edukitze harremanak; baserrien bereizgarriak; gizarte eta egitura sozioekonomikoa; herribasoen ustiapenak; burdingintza tradizionala edo olak; eta gizarte gatazkak eta tokiko boterea», azaldu du Bidasoako Ikerketa Zentroko zuzendari eta aldi berean lanaren egileetako batek, Fernando Mikelarena historialari beratarrak.

Beran 1638an gertatutako suteak informazio iturri asko galarazi dizkiela aintzat hartuz, Fernando Mikelarenak, Pilar Erdozainek, Juainas Paulek, Izaskun Abrialek eta Aurelio Gutierrezek ez dute dokumentazio

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Biktoriano Iraolaz aipu labur

Pasai Donibaneko Biktoriano Iraola Hegoaldeko bigerrateen artean -azken karlistada eta 36.ekoa- sortu belaunaldiaren adibide ezin esanguratsuago dugu; olerkia zein antzerkia zein narratiba landu zuen, eta, agian, munta handiko lana egin ez bazuen ere, kopuru aldetik behinik-behin baztertu ezin den lana bazaigu egun



MUCHOS NOMBRES DE ESTA generación -la que siguió a la terminación de la última guerra carlista y que es anterior a la nueva ola que se abre paso en el primer cuarto del siglo XX- han sido preteridos al imponerse las nuevas corrientes, y sin embargo son bien dignos de ser rescatados del olvido: R. Artola, R. Azkarate, B. Iraola, E. Elicechea, etc. Ez dakit zein neurritan Villasanteren hitzok artatzen ari diren egun, baina arras pozgarria zait DBH-n erabiltzeko Mendiguren-Eizagirre tandem gotorrak berriki ateratako testu-liburua *Euskal literaturaren antologia*, Donostia, Elkarlanean, 1998- txirikordatzeko erabili irizpidea, eta horra hor, non Iraola dagerkigun haundien -baita apalagoen ere- artean -argazki eta guzti, alain-tso!-

Pasai Donibanen 1841.ean sortu zen Biktoriano Iraola Aristigietan, Donostian bizi bazen ere. Katalina Albarez-Azpeitiarekin ezkonduz, Azpeitia karrikako 5. zenbakian zeukan inprimategian egiten zuen lana -Pio Baroja aterbetu zuen eraikin berean-, irarkola asto batek mugitzeak makina esanmesan sortarazten zuela. Errepublikazale eta foruzale, Donostiako zinegotzia ere urte luzetan arizan zen, Kontxako tamarindoak ekartzearan alde bozkatu zutenetakoa izanki. 1919.eko irailaren 19an hil zen Donostian.

Langile porrokatua, abondo paper zipriztindu zituen, solte edo garaiko aldizkarietan ageri zirenak, bere izenez, edota Churi nahiz Sei ezizenenpean. Genero guztiak landu zituen. Lehenbiziko lanak bertsolari-tza-poesiaren barruan burutu zituen, esate baterako, Iruñeko *Euskara* aldizkarian 1880. eta 1881. urteetan agerturikoak: «Abenduaren 7a 1688garren urtean» -hau ere *Bertsolariya* aldizkarian agertu zen

1932.ean-, «Guda, gudariak eta beren itz-bideak» eta «Lore igartua», baita *Bertsolariya* aldizkarian ere 1932.eko agorrilan argitaratu emaniko «Pilotariyak» izenburupeko bertsoak, bertan argitu zuenez, 48 urte lehenago eginak zirenak.




Ezagunagoa igaro zitzaigun, ordea, antzerkigintzan garatu zuen lanarengatik. Iraolaren antzerkilanak oro alaiak eta umoretsuak ditugu, far eragile bezain arin, Soroa maisuak hasitako ildotik, eta zerrenda luze baten osatzaile. Kronologikoki emanda, 1884.ean Bi itsubak zartzuela jokatu zuen estrainekoz Donostian F. Asenjo Barbierren musikarekin, eta Iruñean burutu lehiaketa literarioan Pelayo Castilloren *El que nace para ocho* lanaren itzulpena den *Ardita beti ardit-esanguia eguintze batian eta bersuan*- saritu zioten, urte bertsuan argitaratu emanik Donostiako Peña eta Pozoren etxean -nahiz 1889.eko abenduaren 26ra arte ez zen oholtzaratuko-; 1886.ean, berriz, Petra xardin saltzallia jostaketa komiko-lirikoa aurkeztu zuen Raimundo Sarriegiren musikarekin, tankera honetakoa ere *Karmen gaztain saltzalea eta zeladore baten estuasunak*; 1888.ean Sarriegik musikatu *Pasayan* zartzuela saritu zioten lore jokoetan; 1889.ean Xordo bakarriketa taularatu zuen estrainekoz Donostian, 1890.eko Euskal Esnalea-n argitaratu emanen zuena; 1891.ean Emiliano Sánchez Pastorren zortzikotik eginiko *Leokadia esangia edo zarzuelachua* egintza ba-

tian egokitzapena eman zuen argitara Barojatarren etxean N. Luzuriagaren musikarekin; 1892.ean *Txomin Donostiyan* errebista Luzuriagak musikatu eta *Pulpuba* bakarriketa; 1894.ean Navarretearen *Percances de un apellido* lanean oinarria zuen *Onentzaro gaba* egintza bakarreko komedia aurkeztu zuen, baita Bilboko Euskaltzalekoek sariturik gai beretsuko Gabonetan zartzuela; 1900.ean *Ulijakuak* agertu zuen Donostian; 1902.ean *Ergobian* akto bakarreko komedia Donostian estrainekoz jokatu zen; 1909.ean *Lxkina Mutrikun* bakarriketa eman zuen argitara Donostian; bakarriketak ere *Joxemaritarrak*, *Xardiñak*, *Zinean* eta *Txokolo* lanak izan ziren, gehienetan ere, Pepe Artolarentzat idatzi zituenak.

Alta, eta gorago aipatu Mendiguren-Eizagirerenean ziurtatzen den eran, Iraolaren antzerkien gainetik ipuinak jar litezke, garaian ekarri modernitatearengatik bereziki. Honen lagina ekartzen digute bada beren antologian «Tranbian» testuaren bitartez. Añamendikoek ere 1907.eko *Baserritarra* aldizkarian agerturiko «Beti bezala» ipuina eskeini ziguten literatur entziklopediaren bigarren alekian. Edozein modutan ere, Iraolaren narratiba zuzen-zuzenean dastatu nahi duenak 1887.ean Donostiako Pozoren etxetik elkiriko Kontuhoak ipuin bildumara jo beza, halaber, 1962.ean Zabalak lematu Auspua bildumaren 9. zenbakiarekin atera zen *Oroitzak eta beste ipui asko* lana badu irakurgai. Bestaldetik ere, Iraolak landu pasadizo-xelebrekeria-txantxen generoa ezin aipatzeke laga, horra hor Euskal esnalea aldizkariaren orrialde gatz eta piper demasa eman zien *Izkirimiriak*, G. Mujikari Iraola Bilintxen izpirituaren jarraileatza jotzeko arrazo beste eman ziona.

etorri ahalean

Patziku Perurena



Goizuetan Portolo zenaz

LEHENGOAN, PORTOLO izan zitekenaz azaldu nizekizun neure kosetxako burutazio batzuk. Askotan ordea, irudipen huts sinesgarri asko sortzen dugu letratu harroskok (zu ere barren, irakurle), eta ez gara ohartzeko gure diskurtso eskolastiko lojizko apaindu eta itxuraz nobleto honek baino gizenki zuri gutxiago eta gihar gorri gehiago erakusten duela letratu gabeko edozein hiztun inozentek. Aitari etxean jasotako pasarteok lekuko. Egizu kontu, hika kontatuak daudela niri:

«Nik Portolon Joanblas zena ta, izautu nittien; beno, Joanblas enien izautu nik, biño andrea bai. Oik ittuen oaingo Oxe onen atton amonak. Oxe ta oinatta zena Portolon bertako semea yuen, ta ama men tzien Leitzakoa, ta itxen azpikalden belarren ai ziala, malda ikarria baita an, ta seme ori oandik aurra, ta nonbette utziko ziten belaso eskiñen baten ta, amildu goitpetti, ta susto artatik ill men yuen ama, Joanblasen lemitziko andrea zena.

Gero berriz, beste andrea bear ta, Arantzea yon men yuen gizona, talok pañulon artu, gerrin lotu pañuloa ta, mendiz mendi Arantzea andregai billa. Ta an puntzioa do soñua do zer baitzen e, plazan zabiltzala, gerriko pañulotik eskapatu ta talok lurrera eroita nola ibilli zen plazan erdin, ala aittu izanduit nik.

Gero, andretako artu zun neskaxa betea men tzeon ba orduko, ta esan menzteon itxen nola zon, ta: «etzula inportik! ain errin miatxo ernarik antzuk biño geio balio izate unztela!». Ta gero ain umek, bat o beste izautu nittien nik: Martina ta, Bernardo re bai, gizajo samar bat izaten yuen.

Biño itxera ezkondu zena, Joxemiel uen, oin senideordekoa, len itxapen amildu zela esan dun ora, lemitziko andre leitarran semea. Ark e gero, andrea arantzarra artu zien, Artantxuko Beronikan ta aizpa, Iparragierre ziten apellidoa, Leitzako

«Iparra» zar onen izebak ittuen oriek, Iturrin anaia.

Ta ezkondu ta belexe, Joxemiel ori, nonbette lizar mozten ai zela, lizarran gañetik eroita izterra autsi men tzien, ta andik pasmatu ta, ill gizona. Ta Joxe, oain Portolon bizi den au, umea zula alargun geldittu andrea, ta Arantzea yon ittuen ama semek, ta urte askon an bizittu ittuen.

Bittarte ortan bizittu ittuen famili franko Portolon: «Kapote» ta, «Xilo» ta; gero berriz Erregea ta, bizittu ittuen. Ta oaingo Oxe au mayorazko izan, ta Aranaztik berriz ona torri zenen, Portolotik Danbolinbordara yon ittuen Erregea ta. Ordun berrittu ziten Portolo; ori leno itxe txar bajubaju bat yuen, solairu bakarrekkoa, ta sukaldea gero goian patua izaten dik, biño leno lurren izaten tzien. Azpikalden berriz estalpe zar bat, ta aik denak urratu ta, itxea ongi in tzien gero. Ta ordun torri ittuen orrara bizitzera oaingo Oxe au ta, bere andre zena Maria ta, Arantzik.

Leno aztu in tziak esatea Joanblas zena nola ill tzen: Denbo aitan taberna men yuen Exkurren, ta Portoloko Joanblas zenori, yaen baten, gaupasa intado, yokon ai men yuen launakin, ta Arantzik betea karri zun andre orrek alu samarra izan bar tzien ba, ta goizalden Exkurnera yonta artu dik aurren gizona yokon aizen lekutik eta, eskallek petti abitu denen, bulkatzik alajainkoa andre atzetik, ta lepozurra autsita bertan ill gizona! Pixkan bat erana iziin yuen o, etzekit nik, betire benpe andre eskallek petti botata nola akazi zun! Nik ala aittu izanduit.

Desgrazi eta mixeri kontu ugari ageri da hor. Baziren gehiago ere: beste haur bat, lurreko suan erre baitzen Portolon 1847an.

Astean hirulau aldiz iragotzen naiz Portoloko etxaburutik, eta aitari aditutako kontu ilun eta xelebre horiek kontatzen dizkiot aldizka nere bihotzari. Sumatzen baitut inork ezin nauela barrenago aditu.

Ziria

• Motxorrosolo •

Elkartasuna

Ondorioei ez zaiela erreparatzen esan berri du elkartasun kontuetan aditua denak. Banitateak lur eman korrak bereganatu ditu datorren menderako. Ezaguna zen bizia balio gutxiakoa zela beste lurraldeetan, erahilak, maiz, erreportai luze baten lerro bakarrean bahiturik agertzen dira.

Iñaki Alvero  Idazlea

«Nire poesia alternatiboa da»

Iñaki Alverok Ritzker Fundazioaren hirugarren saria jasoko du bihar Bruselan. *Imperio bobo* 30 olerkiko lanagatik. Europako hainbat herrialdeetako gazteen artean aukeratu dute Cintruenigoko gaztearen poesia. Alverok milioi bat pezetako dirulaguntza lortu du (40.000 libera) heldu den urtean gazte sortzaileentzako eskola batean ikasteko.



MIKEL SAIZ

EZTARRIA HARTUTA BAZUEN ere, irrifartsu eta hitzun aritu zen Iñaki, jaso berri duen oparia berea dela sine-tsiko ez balu bezala. Nola nahi ere, aprobeztatuko delakoan dago.

■ **Sari garrantzitsua irabazi duzu.**

Bai. Abenduaren 30ean edo deitu ninduten, eta uste nuen txantxetan ari zitzaizkidala. Ez nintzen oroitzen bidali nuenik ere, lehiaketa askotara aurkezten bainaiz. Nazioarteko Ritzker Fundazioak Europako herrialdeetako gazteen artean aukeratutako lanei ematen dien hirugarren saria da. Ikasteko milioi pezetako dirulaguntza eta diploma bat emanen didate.

■ **Zer egingen duzu sariarekin?**

Ikasten eta idazten jarraituko dut. Seguruena Madrilgo Gazte Kreatzaileen Eskolara joanen naiz.

■ **'El imperio bobo' olerki sortarekin irabazi duzu hirugarren saria. Gizarteak inposatu nahi duenaren aurka gazte batzuek egiten duten solasaldia da.**

Epaimahaiak aipatu du zure lana alternatiboa eta managaitza dela. Uste berekoa zara?

Gazte zarenean baduzu ezberdin izateko gogoia eta nahia. Alternatiboa da nire poesiari jartzen diodan adjetiboa. Beste batzuk diote rock-arekin zerikusia duena

ere badela. Ezberdina eta ezohikoa da. Era berean, ulergarria eta erraza dela esanen nuke.

■ **Gaiak ere gazteei egokituak dira?**

Idazten ditut oso gauza errazak eta xumeak, guztientzako ulergarriak. Gaur egungo gaiak dira: antimilitarismoa; ekologismoa; gorrotoa; maitasuna; ezkortasuna; baikortasuna; drogomenpekotasuna; politikakeriak; gizartean esaten diren gezurrak eta gordetzen diren egiak... Azken lanekoak aldarrikapena dute oinarri, eta batzuk bigunagoak diren moduan, besteak gogoragoak dira.

■ **Dena dela, gutxi irakurtzen den, eta modan ez dagoenen bidea, poesiarren bidea, hartu duzu.**

Ez nago ados. Poesia guztian dagoela uste dut: iragarrietan, egunkarietan, edozein publizitate marketinean poesia bilatu nahi da, politikan ere entzulea harrapatzeke hainbat lelo asmatzen dira. Musikan ere gauza bera, HEAVYARENak ere beti esaten dute zerbait. Askok rock-a beti baztertu egin dute, uste izan dutelako ez zuela adierazpiderik. Aliz, badu managaitza dena adierazten duela diot nik, inposatu nahi dizuten zerbaiten aurka bihurtzen da. Horregatik ikusarazi nahi dut bakoitzak gustora egon behar duela egiten duenare-

«Ikusarazi nahi dut bakoitzak gustora egon behar duela egiten duenarekin eta dituen helburuekin, abelbide jakin batzuetatik eraman ez zaitzaten zu eta gizartea bera. Esnaturik zaudela amestu behar da, eta bizitza horretan oinarritzen da: ametsetan eta ondoren datorren esnatzean»

kin eta dituen helburuekin, abelbide jakin batzuetatik eraman ez zaitzaten zu eta gizartea bera. Esnaturik zaudela amestu behar da, eta bizitza horretan oinarritzen da: ametsetan eta ondorengo esnatzean.

■ **Lanak zuk zeuk argitaratu dituzu?**

Zaragozako Ejido editorialak argitaratu dit azkena. Beti mugitu izan naiz gazte taldeak dauden eremuetan. Gustatzen zait feria eta merkatuetan saltzea. Eguberrietarako atera behar nuen azkena baina martxoak arte edo ez da aterako. Argitaletxe baten bila nabil.

■ **Sariak lagunduko dizu?**

Uste dut baietz. Proposamen batzuen zain nago. Atzeratu da beste lan batzuk egi-

teko nituelako eta liburua txukun kaleratu nahi dudalako.

■ **Euskarara itzultzeko asmoa ere baduzu.**

Bai, argitaratu ez den arren, jadanik eginga dago. Orain laguntza bat behar nuke kaleratu ahal izateko.

■ **Cintruenigo toki egokia da inspiraziorako?**

Sorian unibertsitatean nengoenean Nekazal Ingenieritza Teknikoa ikasten Duroaren eta mendien artean falta zitzaidan indarra eta bultzada sortu zitzaizkidan. Askok joaten naiz Granada, Bartzelona, Madril eta Bilbora. Leku guztietan izan dezakezu inspirazioa, itsasertzean edo mendiaren puntan, edozein toki ona da zuk lan egiteko gogoia baduzu.

soslaia

Iñaki Alvero Erriberako Cintruenigo herrian bizi da eta 27 urte ditu. Sorian Nekazal Ingenieritza Teknikoa ikasten hasi bazen ere, idazteko gogoak bultzatuta, poesian arakatzeko hasi zen. Bere lanak idazteaz gain, finantzatu eta banatu ere egiten ditu. Aurrerantzean ere horrela jarraitu nahi du, eta poesia ogibide izan nahi luke.

Bidaiatzeaz eta idazteaz gain, oso gustoko ditu zinema, antzerkia, literatura, eta musika. Batez ere, «gaurkotasuna duten gaiak irakurtzea zein ikustea gustatzen zait. Gazteak, gaua eta parranda ditut maite», dio. «Nire olerkiak baikortasun ziztada bat izan daitezten saiatu naiz. Gauza onak adierazi eta igorri nahi ditut mundu guztia bere buruarekin pozik egon dadin», gaineratu du.

Hamalau urterekin hasi zen idazten. Orduan Tuterako Vicio taldeari kantuen hitzak egiten zizkion. Egun, Iruñeko Kizio taldearentzat izkiritzen ditu, eta eskatuz gero beste batzuentzat ere bai. Olerkiak idazten dituen arren, elaberrigileak ditu gustoko —hasiberriak zein ezagunak—; Sergio Vilches eta Julian Sanchez espainiarrak eta Paolo Cohelo brasildarra, kasu.

■ **Beraz, zer egiten du nekazari batek olerkigintzan murgildurik?**

Ikasketak ez nituen bukatu eta poesian jardutea erabaki nuen. Gurasoak hasarre daude nirekin. Oso pozik nagoela ikusten dute, eta egunero dei eta eskutitz asko jasotzen ditudala, baina horrek ez die balio. Segurtasuna nahi dute semarentzako, eta ez daude ados egiten duenarekin. Gainera, ez dute ulertzen idazten dudana, baina tira!

■ **Irakurri dudanez, Bilbo da gustokoena duzun hiria. Zergatik?**

Bai. Jendea oso irekia da eta ez du laguntzea besterik begiratzen, elkartasuna dute oinarri. Mugimendu asko dago eta atsegin dut.

■ **Etorkizunean bide bera jarraituko duzu?**

Oraindik idazten eta idazten jarraituko dut. Elaberrri eta zinema gidoi bana badut pentsamenduan. Orain nire liburuan tesia egiten ari da neska bat Iruñean. Besterik gabe, idazten jarraituko dut.

→ Irene Arrizurieta



Nafar Kronika

Kike Diez de Ultzurrun

Urteberriko kezkak

Urte zaharra ederki bururatu zen. Pazko bigarrenak Sadar jendez mukuru ikusteko aukera eskaini baitzigu. Denok arront kontent, malakoak begietan, burugora, zut, arnasberituak, barreneko poza ezin gordetik, bozkarioa bihotzetik gainezka eginez. UPNko hautetsiek, ordea, arranguraturik, gaizki erranka, maldizioka, galduak, irrigarri gizartearen aitzinean (telefono gida eta agenden aferarengatik), kolera gorrian, senetik aterata, eta, halako batean, hantsa ederki hartu dute. Ez dituzte abaguneak galtzen, ez, eta, indarrez ekin diote. Izan ere, arnasa sakon eta lasai hartzeko parada ezin hobea eskaini die Arellanoren autoari su eman zionak, eta, karantza berdotzen eta ospinduen orde, musu gorri osasuntsuak agertzen dituzte, ezpainetan irri zabala dutela. Ongi pentsatzera, esku hori, esku beltz hori, nori dagokio? Nik dakita ez ote den kanpotik etorri, eta, hala izatera, dagoeneko, ederki sarituko zioten tajuz egindako lana. Auskalo. Hemen kontua ez da gaitzetsi ala ez, baizik eta nori egin zaion mesede eta nori kalte, nori zapuztu egin nahi dituen euskalgintzaren alorrean eta bertze alor batzuetan, konparazione politikagintzan, sortutako pozak. Gauza jakina zen Madrilgo Gobernu horretan saiatuko zela, eta, alde horretatik, Madrilgo Gobernu aintzindari da elkarbizitza arauak aintzat ez hartzerakoan. Eta horra, erantzun sendo eta paregabea, gizarateak lehengoan, Bilbon, emandakoa, edota, Diputazioak euskararen gainean daraman politikamolde zanpatzaileari, Sadarren, eskainitakoa. Hortaz, zertarako sukinarena egin jakinik horrek mundu abertzalean zatiketa eragimen duela? PPri eta UPNri are indar handiagoa emanen zaiola? Lizarra-Garaziko akordioari piko egin diezaiokeela? Euskararen aurkako jarrerak sendotuko dituela? Nafarroan bereziki ezinbertzeko zaigu hauteskundeen aurreko «barealdia», EAEko hauteskundean izan zuten bezala. Ala bost axola Nafarroa eta hemen, ekaineko bozetan, gerta daitekeena?.

gure aukerak

KONTZERTUAK

- **Lizarra:** Flitter taldeak *La vida kecotxi-na es bere azken diska aurkeztuko du gaur, 23:00etan, Gaztetxean.* Sarrerak 500 pezeta balio du.
- **Elizondo:** Discipulos de Dionisio taldearen kontzertua eskainiko du gaur, 22:30etatik aitzina Casino tabernan.

ANTZERKIA

- **Iruñea:** T'ombigo teatro taldeak *La fiesta del abuelo mudo* lana taularatuko du bihar eta etzi, 18:30etan, Nafarroako Antzerki Eskolan.

ERAKUSKETAK

- **Iruñea:** Pintzel galerian Isabel Sanchez Gilen artistaren pinturak ikusteko aukera dago urtarrilaren 29ra arte.
- **Zizur Nagusia:** Kultur Etxean Jose Luis Ansonen margoak ikus daitezke urtarrilaren 24ra bitartean.
- **Atarrabia:** M^a Jose Lopez Abrilek 1995etik 1998ra bitartean margotutako oleoak ikus daitezke Kultur Etxean asteleheneretik ostiralerara 17:00etatik 21:00etara.

ZINEMA

- **Iruñea:** Karrikiri Elkarteak antolatuta zinema euskaraz Golem zinematokian. Gaur *Odei iragan-korrek* pelikula pantailaratuko da 20:00etan eta, aurretik *Nola egin amodioa emakume bati eta Sexua eta Bortizkeria* laburmetrailak.

BESTELAKOAK

- **Iruñea:**

Esperantoaren Nafarroako Elkarteak esperanto hizkuntza ikasteko ikastaroa antolatu du. Ikastaroan parte hartu nahi duenak Iturruma Kultur Zentruara joan behar du datorren astelehenean 19:00etan. Helbidea ondokoa da: San Juan Bosco kaleko 15. behea.

► **Iruñea:** Nafarroako Kirol Elkarteak diapositiba emanaldia eskai-

niko du gaur, 20:00etan, Erraldoien Txokoan. Jose Ramon Agirre 'Marron' mendizaleak K2 Baltistan izenburupean Himalayara eginiko bidaian hartutako diapositibak erakutsiko ditu, eta han bizi izandakoak kontatuko ditu.


► **Iruñea:** Nafarroako Kirol Elkarteak mendi eskolako gazteek txangoa antolatu dute etzira-

ko. Gamuetara joan, Antzotiello igo eta Ozako Ohianan bukatuko da zeharkaldia. Informazio gehiago 948-22-43-24 telefonoan.

► **Iruñea:** Gentz del Valle Lersundi Euskal Herriko Unibertsitateko Marrazki irakasleak 'Una visión de la naturaleza en el arte' hitzaldia eskainiko du gaur, 19:30etan Navarrerriako Kultur Zentruan.

Arestiren liburutegia

Castelao nos



—Dou seu fillo para Cuba e o seu neto para Melilla; mais agora non ten cartos para pagal-os trabucos. Quedará sen chouza.

Semea Cubarako eman zuen, eta iloba Melillarako; baina orain zergak dagatzeko dirurik ez du. Etxea ere galduko du.